


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EUROPAKO IKERKETA-AGINDUA: MUGAZ GAINDIKO FROGEN LORPENERAKO TRESNA BERRIA

ZUZENBIDE FAKULTATEA

Zuzenbide Gradua
Gradu Amaierako Lana
2020-2021 ikasturtea

Egilea: JONE MARTIN ATUCHA
Zuzendaria: GOIZEDER OTAZUA ZABALA

LABURPENA

2014an Europar Batasunak Europako ikerketa-agindua onartu zuen 2014/41 Europar Batasuneko Zuzentarauaren bidez. Elkarrekiko aintzatespenerako baliabide juridiko berri honen helburu nagusia da Europar Batasuneko kide diren estatuen arteko zigor-arloko prozesuen frogen lorpena erraztea eta azkartzea. Lan honetan Zuzentarauaren garapena, kontzeptua eta edukia aztertuko dira, baita agindua izapidetzeko prozedura ere; estatu batek agindua igortzen duenetik, beste estatu batek hori exekutatzen duen arte. Gainera, aparteko aipamena egingo zaie Europako ikerketa-agindua ukatzeko arrazoiei. Guzti hau, Zuzentarauaren aplikazioak sortu ditzakeen arazoak kontuan izanik, batez ere, oinarritzko eskubideen eta berme prozesalen babesari dagokionez.

AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	5
1. SARRERA.....	6
2. EUROPAKO IKERKETA-AGINDUA: MUGAZ GAINDIKO FROGEN LORPENERAKO TRESNA BERRIAREN EREMU OROKORRAK.....	7
2.1. Aurrekariak eta arauketa.....	7
2.2. Kontzeptua eta ezaugarriak.....	10
2.3. Helburua eta aplikazio-eremua.....	12
2.4. Edukia eta forma.....	14
3. EUROPAKO IKERKETA-AGINDUA IZAPIDETZEKO PROZEDURA: IGORPENA ETA EXEKUZIOA.....	16
3.1. Autoritate eskudunak.....	16
3.1.1. Igorpen-autoritatea.....	16
3.1.2. Exekuzio-autoritatea.....	17
3.2. Aginduaren igorpena eta transmisioa.....	17
3.2.1. Alderdiaren eskaera.....	17
3.2.2. Igorpena.....	18
3.2.3. Igozpenerako baldintzak.....	18
3.2.4. Transmisioa.....	20
3.3. Aginduaren aintzatespena eta exekuzioa.....	21
3.3.1. Aginduaren harrera.....	21

3.3.2. Baliokidetasun printzipioa.....	21
3.3.3. Exekuziorik gabeko aintzatespena.....	22
3.3.4. Ordezkapena.....	22
4. UKATZEKO ARRAZOIAK: EUROPAKO IKERKETA AGINDUA EZ EXEKUTATZEKO LEGEZKO AUKERA.....	24
4.1. Europako ikerketa-agindua ukatzeko arrazoen nondik norakoak.....	24
4.2. Europako ikerketa-agindua ukatzeko arrazoi espezifikoa.....	26
5. IKERTUAREN OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA FROGAREN ZILEGITASUNA.....	29
5.1. Egungo egoera.....	29
5.2. Ikertuaren oinarrizko eskubideak eta berme-prozesalak: errugabetasun-presuntzio eta defentsarako eskubidea.....	30
5.3. Epaietan lehena: <i>Ivan Gazanov</i> auzia.....	32
6. ONDORIOAK.....	34
7. BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRIAK.....	36
7.1. Bibliografia.....	36
7.2. Web-orriak.....	38
7.3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak.....	39

LABURDURAK

EAL: Elkarrekiko Aintzatespenari buruzko Legea

EB: Europar Batasuna

EBFT: Europar Batasunaren Funtzionamendurako Tratatua

EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

EBJAE: Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia

EBT: Europar Batasuneko Tratatua

EIA: Europako ikerketa-agindua

EIAZ: Europako ikerketa-aginduari buruzko Zuzentaraua

EJN: Europako Justizia Sarea

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

ik.: ikus

JBA: Justizia eta barne-arazoak

koord.: koordinatzailea

or.: orrialdea

zk.: zenbakia

zuz.: zuzendaria

1. SARRERA

Europako Askatasun-, Segurtasun- eta Justizia Esparrua finkatzea Batasunaren lorpen handienetarikoa izan da¹. Mugen ezabatze gradualak eta ondasunen, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalaren mugimenduaren hazkundeak, estatu kideen garapen sozioekonomikoan eta Europako herritartasunean eragina izan dute.

Hala eta guztiz ere, nazioz gaindiko mugikortasunaren gorakadak efektu kaltegarri bat edo beste ekarri dezake aldean. Mugaz gaindiko kriminalitate kasuak edo mugaz gaindiko elementua duten kasuak ebatzea – hau da, bi estatu edo gehiagotan egiten den edo bi estatu edo gehiagoren jurisdikzioak tartean sartzten dituzten delituak ebatzea–, kontu arazotsua da. Tradizionalki kriminalitate antolatuarekin lotu den mugaz gaindiko kriminalitatearen fenomenoak areagotzeak, estatu kideen arteko lankidetzaren premia du. Egoera horri konponbidea aurkitu nahian, Europako legegileak abian jarri ditu zigor-arloko lankidetzaren judizialerako tresnak. Horien artean, Europako ikerketa-agindua (EIA), zeinaren bidez mugaz gaindiko frogak lortu daitezke.

Mugaz gaindiko frogaren inguruko arazoak –bereziki konplexutasuna eta moteltasuna–, frogen lorpenerako elkarrekiko aintzatespenerako tresnen onarpena ekarri zuen, eta berekin, 2014ko apirilaren 3ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/41/EB Zuzentaraua, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa². Tresna berri honek zigor-arloko frogaren lorpenerako ezartzen duen erregimena ezagutzera eman eta segituan askotariko iritziak azaldu dira.

¹ “Askatasun-, Segurtasun- eta Justizia Esparrua” EBeko politiketako terminoa da. Europar Batasunean pertsonen zirkulazio askea bermatzeko eta delinkuentziari aurre egiteko eraturako esparrua da. Estatu kideen elkarrekiko konfiantza eta errespetuan oinarritzen da, bereziki EBko Zuzenbide eta oinarritzko eskubideen errespetuan.

² [2014/41/EB Zuzentaraua](#) estatu kide guztiei aplikagarri zaie (26 estatu kide; Irlanda eta Danimarka salbu).

2. EUROPAKO IKERKETA-AGINDUA: MUGAZ GAINDIKO FROGEN LORPENERAKO TRESNA BERRIAREN EREMU OROKORRAK

2.1 Aurrekariak eta arauketa

Estatuen arteko konfiantzan oinarria duen elkarrekiko aintzatespena errazteko, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak (EBFT) Europako Parlamentu eta Kontseiluari legegintza-eskumena aitortzen die. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak “mugaz gaindiko zigor-arloko auzietan lankidetza poliziala eta judiziala” lortzeko arauak xertatzen dituzten zuzentarauak onartzeko ahalmena dute (EBFTko 82.2. artikulua).

Europar Batasunaren (EB) funtzionamendurako egungo arauaren xedapenak, elkarrekiko aintzatespenerako tresnen sorrerarako bidea eman du, agindu edo ebazpen gisa garatuz. Horren adibide argia dugu Europako ikerketa-agindua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB Zuzentaruaren erregulatzen dena (EI³).

Luzaroan eztabaidatu da Europako ikerketa-aginduaren onarpenaren beharraz, eta honekin batera, elkarrekiko aintzatespen printzipioak, elkarrekiko laguntza legalaren sistema ordezkatzeko komenigarritasunaz, zigor-arloan EBean nazioarteko lankidetza judiziala berrantolatze⁴.

EBFTko 82.1. artikuluari jarraiki, zigor-arloko lankidetza judiziala, epai eta ebazpen judizialen elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarrituko da. Azken hau, Batasunaren funtsezko printzipiotzat jo da, zigor-arloko lankidetza judizialari dagokionez.

Europako Askatasun-, Segurtasun- eta Justizia Esparruaren eraketarako ezinbesteko tresna izan da elkarrekiko aintzatespen printzipioa. Jatorriz, printzipio hau eremu zibilean agertu zen; eta orain arte, merkatuaren, merkantzien eta eskubide pribatuen mugimendua bermatzen zuen. Denborarekin, elkarrekiko aintzatespen printzipioa zigor-arloko prozesura

³ EBean, zigor-arloan frogen lorpenari buruz ematen diren arauak bi motakoak dira, eta nazioz gaindiko jatorria duten arren, beren artean ezberdinak dira oinarri eta aplikazio-eremuari dagokionez. Batetik, elkarrekiko laguntza printzipioan oinarritzen diren tresnak existitzen dira, eta bestetik, elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarritzen direnak daude. Elementu frogagarrien lorpenaren eremuan tresna biak baterako existentzia dute, lankidetza judizialean oinarritzen diren tresna konbentzionalak eta estatu bakoitzaren subiranotasuna errespetatzen duen lankidetza malgua, eta elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarritzen diren tresnak, printzipioz estatuen arteko lankidetza inposatzen dutenak.

⁴ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa: la Directiva 2014/41 relativa a la orden europea de investigación”, *Revista General del Derecho Europeo*, 36. zk., 2015 (3. or.).

zabalduta. Printzipioak titulu judizialen zirkulazioa eskatzen du, eta kasu gehienetan, titulu hauek oinarrizko eskubideetan eragina dute. Ereku zibilarekin alderatuz, zigor-eremuan kontrako efektua sortzen du printzipioak; hau da, askatasun pertsonalaren mugak hedatzeko balio du, autoritate nazionalak norbanakoei inposatutakoak, hain zuzen ere⁵. Oinarrizko eskubideen arloan, bereziki zaila da printzipio hau jarraitzea aurreikuspen legal orokorrik gabe, hauek beharrezkoak baitira oinarrizko eskubideen errespetua bermatzeko. Doktrinak gutxiengo aurreikuspenak eskatzen ditu printzipioa bideragarria izan dadin⁶.

Elkarrekiko aintzatespenerako printzipioa zigor-arloan lehenengo aldiz aplikatu zen 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/584/JBA Esparru-erabakian, estatu kideen arteko entrega prozeduren eta atxiloteta-aginduaren ingurukoa. Hemendik aurrera, elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarritzen diren bestelako Esparru-erabakiak eta Zuzentarauak onartu dira⁷.

24/2014 Legeak, EBean emandako zigor-ebazpenen Elkarrekiko Aintzatespenari buruzkoa (EAL), EBren eremuan elkarrekiko aintzatespenaren inguruan onartutako araudi osoa biltzen du, eta noski, Esparru-erabakiak eta Zuzentarauak barnean daude. EALko 1. artikulua, zigor-ebazpenen elkarrekiko aintzatespen printzipioa, estatu bateko autoritate judizialek emandako agindu edo ebazpen bat (lege honetan barnebiltzen dena) beste estatu kide bati igortzea ahalbidetzen duen printzipio gisa definitzen du. Jarraian, 2. artikuluan adierazten dena kontuan hartuta, elkarrekiko aintzatespen tresnaren kontzeptuak EBeko estatu kide batek beste bati igorritako agindu edo ebazpenari egiten dio erreferentzia (honen aintzatespen eta exekuziorako)⁸. EBren eremuan emandako zigor-ebazpenen elkarrekiko aintzatespenak Europar Batasunaren Tratatuan (EBT) eta Europar Batasunaren Oinarrizko

⁵ GLASER, Sanja; MOTZ, Andreas; ZIMMERMANN, Frank. "Mutual Recognition and its implications for the Gathering of Evidence in Criminal Proceedings: A critical Analysis of the initiative for a European Investigation Order", *European Criminal Law Review*, 1. liburukia, 1. zk., 2011 (1. or.).

⁶ "Mutual trust can only exist if there is a certain common basis in all Member States' systems of criminal justice. (...) A minimum approximation of the member States' substantive criminal laws is necessary because the certainty that the behaviour would also constitute a criminal offence in its domestic law would make it easier for the requested State to execute a request for assistance" SUOMINEN, Annika. "Limits of mutual recognition in cooperation in criminal matters within the EU - especially in light of recent Judgments of both European Courts", *European Criminal Law Review*, 4. liburukia, 3. zk., 2014 (5-6. or.).

⁷ Ikusi: 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren 2002/584/JBA esparru-erabakiko 2. eta 6. kontuan-hartutakoak eta 1. artikuluko 2. atala. Horietan esaten da, Estatuak elkarrekiko aintzatespen printzipioaren arabera arituko direla edozein atxiloteta-agindu exekutatzekoan.

⁸ FERNANDEZ FUSTES, M^a Dolores. "Régimen general del reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión Europea". GONZALEZ CANO, M^a Isabel (koord.). *Integración europea y justicia penal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018 (53-57. or.).

Eskubideen Gutunean aitortzen diren oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatu beharko ditu (EALko 3. artikulua)⁹.

Zuzentaraua indarrean jarri aurretik, materia frogagarriaren arauketa eremu europarrean erabat sakabanatua eta osatugabea aurkitzen zen bi esparru-erabaki hauetan: 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/577/JBA esparru-erabakia, EBean ondasunen bahiketa prebentiborako eta frogak bermatzeko ebazpenen exekuzioaren ingurukoa; eta 2008ko abenduaren 18ko Kontseiluaren 2008/978/JBA esparru-erabakia, frogen lorpenerako europar exhortoa, soilik aplikagarri jada existitzen den frogarako, ikerketa-neurriak baztertuz¹⁰. Azken hau, zigor-arloko prozeduretarako datuak, dokumentuak eta objektuak lortzeko onartu zen. Dena den, exhortoa dagoeneko existitzen den frogari soilik aplikatzen zaio, eta hortaz, zigor-arloko frogari dagokionez, nahiko mugatzen da lankidetzak judiziala¹¹.

Frogen lorpenaren eremuan garrantzizkoa da bi egoeren arteko bereizketa egitea; hots, frogen lorpenerako exhortoa eta ikerketa-aginduari buruzko zuzentarauaren ondorioz sortutako tresna berria. Lehenengoak objektu murriztagoa du, prozesu edo ikerketa baten emaitza diren eta epailearen eskuetan dauden elementu frogagarriak igortzeko asmoarekin, ikerketa-organoen arteko lankidetzak judiziala eskatzea litzateke honen helburua. Ikerketa-aginduari buruzko zuzentaraua, ordea, haratago doa. Izan ere, EBeko epaile batek, beste epaile bati (edo fiskal edo polizia) zigor-prozesu eraginkorra aurrera eramateko beharrezkoak diren froga-egintzak burutu ditzan eskatu diezaiotse, Zuzentarauak horrela arautu eta ahalbidetzen du. Gainera, eskaera horrek berekin zenbait exijentzia ekarri ditzake oinarrizko eskubideen babeserako sistemaren inguruan, batik bat frogen etorkizuneko eraginkortasuna eta zilegitasuna emateko.

Printzipio ezberdinetan –funtsean, elkarrekiko laguntza eta elkarrekiko aintzatespena – oinarritutako tresnen aniztasunak, mugaz gaindiko lankidetzak judizialak zail bihurtzen du. Egoera honetaz jakitun, 2009ko azaroaren 11n Europako Batzordeak “Libro Verde sobre la

⁹ Estatu kideen ordenamenduetan biltzen diren oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatu beharko dira ere.

¹⁰ Ikusi: 2003ko uztailaren 22ko Kontseiluaren 2003/577/JBA esparru-erabakia, EBean ondasunen bahiketa prebentiborako eta frogak bermatzeko ebazpenen exekuzioaren ingurukoa; eta 2008ko abenduaren 18ko Kontseiluaren 2008/978/JBA esparru-erabakia, frogen lorpenerako europar exhortoaren ingurukoa.

¹¹ Tresna honen inguruan, besteak beste, ik., AGUILERA MORALES, Marien. “El exhorto europeo de investigación: a la búsqueda de la eficacia y la protección de los derechos fundamentales en las investigaciones penales transfronterizas”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2145. zk., 2012 (5-8. or.).

obtención de pruebas en materia penal en otro Estado miembro y sobre la garantía de su admisibilidad” aurkeztu zuen, honako helburuekin; batetik, momentura arte indarrean zegoen frogen lorpenerako erregimen juridikoa ordezkatzeko proposamena egitea, elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarritzen den eta ikerketa-eginbideak barne hartzen dituen tresna berri eta bakarra eratuz, eta bestetik, estatu kideei egindako kontsulta baten bidez, proposamenaren baliozkotasuna konfirmatzea¹².

Behin kontsulta aldia bukatutzat emanda – 2010eko urtarrilaren 22an –, zazpi estatu kideren ekimenaren ondorioz, Parlamentu eta Kontseiluari igorri zitzaion Europako ikerketa-aginduaren Zuzentarauaren proposamena. Proposamena 2014/41/EB Zuzentarauaren onarpenarekin gauzatu zen¹³.

Estatuei 3 urteko epea eman zitzaien onartutako Zuzentaraua beraien ordenamenduetan txertatzeko, barneko araudia zigor-arloko lankidetzak judizialerako eredu berriari egokituz. Zuzentarauak, estatu kideen transposizioa beranduenik 2017ko maiatzaren 22rako eskatzen zuen (EIAZko 36.1. artikulua)¹⁴.

2.2 Kontzeptua eta ezaugarriak

2014ko apirilaren 3an EBk Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 3ko 2014/41/EB Zuzentaraua onartu zuen, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa.

Europako ikerketa-agindua estatu kide baten autoritate judizialak igortzen edo balioesten duen ebazpen judiziala da, kide den beste estatu batean ikerketa-neurri bat edo batzuk aurrera eramateko, gerora zigor-prozesu baten erabiliko diren frogen lorpenera zuzenduta (EIAZko 1. artikulua). Horrez gain, exekuzio estatuko autoritate eskudunaren eskuetan dauden frogen edo ikerketa-eginbideen bidalketa lortzeko ere igorri daiteke ikerketa-agindua. Beraz, bi jurisdikzio ezberdinen parte hartzea dago, bi autoritate (igorpena

¹² CASANOVA MARTI, Roser; CERRATO GURI, Elisabet. “La emisión de una orden europea de investigación para la obtención de prueba transfronteriza y su introducción en el proceso penal español”, *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 62. zk., 2019 (205. or.)

¹³ Bruselan, 2010eko apirilaren 29an. Zuzentarauaren testu proposamena aurkezteko ekimenean parte hartu zuten estatu kideak: Belgika, Bulgaria, Estonia, Espainia, Austria, Eslovenia eta Suedia.

¹⁴ Estatu kideen artean, Espainiak, esaterako, ezarritakoa baino urtebete geroago egin zuen Zuzentarauaren transposizioa bere ordenamendura, ekainaren 11ko 3/2018 Legearen bidez, hain zuzen ere. Hala ere, ez da lan honen objektu izango Zuzentarauak estatu kideen ordenamenduetan nola edo noiz sartu den eztabaidatzea.

eta exekuzioa) eta bi ordenamendu. Ikerketa-egintzen burutzea eskatzera edo beste autoritate eskudunaren eskuetan dauden frogen eta eginbideen eskaera egitera bideratua dagoen zigorebazpen judiziala da.

Europako ikerketa-agindua ebazpen judizial gisa konfiguratzeko den elkarrekiko aintzatespenerako tresna dela esan daiteke ere. Zuzentarauan bertan adierazten den moduan (Hitzaurreko 6. atalean), ikerketa-agindua elkarrekiko aintzatespen printzipioan oinarritzen da. Honek esan nahi du, zigor-arloko edozein ikerketa-neurri lortzeko aplikatuko dela zuzentaraua, betiere EBeko mugakide diren estatuen artean. Horrela, EBeko kide diren estatuek onartu eta exekutatu beharko dute beste estatu baten eskaera, beraien estatuko agintarien erabakia onartu eta exekutatu beharko luketen bezala. Elkarrekiko aintzatespenerako tresna den heinean, autoritate judizialen arteko komunikazio zuzenean dago oinarria¹⁵.

Elkarrekiko aintzatespenerako tresna berriak, autoritateen arteko eskaeraren kontzeptua barnebiltzen du *agindu* terminoaren erabilerarekin. Eta bestetik, *ikerketa* terminoaren aipamenak, jasota uzten du bere helburua, frogen lorpenerako ikerketa-neurriak aurrera eramatea, batik bat¹⁶.

Zuzentaraua ez da, nazioarteko frogen lorpenaren inguruan EBk onartutako lehenengo araua, baina bai adierazgarriena. Mugaz gaindiko materia frogagarria lortzeko benetako nazioz gaindiko prozedura sortzen da, zuzentarauak bere gain hartzen baitu ikerketaren igorpen, aintzatespen, exekuzio, konfidentzialtasun, epe, kostu, errekurso eta ikerketa-eginbideen praktikan esku hartzen dutenen erantzukizunaren inguruko arauketa. Nabarmenezkoa da ikerketa-agindua aurrera eramateko izapide eta baldintza formalen sinplifikazioa, estandarizatutako formularioei eta epeen finkapenari esker¹⁷.

¹⁵ EBJAE, *Grundza vs Eslovakia*, 2017ko urtarrilak 11 (42. oinarri juridikoa). Europako atxilotze eta entrega aginduekin lotutako epaiak printzipio honi egiten dio erreferentzia, honakoa adieraziz: “El principio de reconocimiento mutuo implica que la autoridad competente del Estado de ejecución, en principio, reconocerá la sentencia que le ha sido transmitida y adoptará sin dilación las medidas necesarias para la ejecución de la condena”.

¹⁶ Helburu nagusia hau izan arren, egia da zuzentarauak kautela-neurriak arautzen dituela. RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *Obtención y admisibilidad en España de la prueba penal transfronteriza: de las comisiones rogatorias a la orden europea de investigación*, Aranzadi, Cizur Menor, 2016 (296. or.)

¹⁷ ARANGÜEÑA FANEGO, Coral. “Orden europea de investigación: próxima implementación en España del nuevo instrumento de obtención de prueba penal transfronteriza”, *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 58. zk., 2017 (909 eta 913-914. or.).

Aurreko atalean labur azaldu den moduan, zuzentarauak sortzen duen tresna berriaren ezberdintasuna – exhortoarekin alderatuz – argia da, funtsean edozein ikerketa-neurri barnebiltzen duelako, *mugaz gaindiko frogen zuzenbidea*¹⁸ izenekoaren garapenean lagunduz. Arau berriarekin, EBren eremuan elkarrekiko aintzatespen tresnen baterako existentziak sortutako “egoera nahasia” nolabait gainditzen dela esan daiteke, autoritate judizialen arteko lankidetzan oinarria duen sistema bakarra gailenduz¹⁹.

2.3 Helburua eta aplikazio-eremua

2014an 2014/41/EB Zuzendaraua onartu zen, zigor-arloko Europako ikerketa-aginduari buruzkoa, EBko estatu kideen arteko frogen lorpena eta transmisioa errazteko eta azkartzeko, eta esparru honetan araudia bateratzeko helburuarekin.

Europako arau berri honen helburua da mugaz gaindiko frogen lorpenerako sistema orokor bat sortzea juridikoki loteslea den tresna baten inguruan, Europako ikerketa-agindua izanik aipatutako tresna hori. Sistema orokor honek, jada existitzen ziren tresnak ordezkatuko ditu, egun nahiko sakabanatua eta nahasia den sistemarekin bukatzeko. Hala da, askotariko tresna arauemaileren baterako existentziak (lankidetzak judizialerako hitzarmenak eta esparru-erabakiak) zailtasunak sortzen ditu hauen eraginkortasunari dagokionez²⁰.

Zigor-arloko lankidetzak judizialerako tresna honek bi helburu nagusi (edo horietako bat behintzat) lortzeko asmoarekin sortu da; batetik, beste estatu kide batean edo batzuetan frogak lortzeko ikerketa-neurriak praktikatzeko, eta bestetik, exekuzio estatuko autoritate eskudunaren eskuetan dauden frogak lortzeko²¹. Horrela, Europako legegileak mugaz gaindiko ikerketa-neurrien praktika ahalbidetu du, prozesu penaleko edozein fasetan

¹⁸ VOGEL, Joachin, “La prueba transnacional en el proceso penal: un marco para la teoría y praxis”. MORENO CATENA, Víctor Manuel; ARROYO ZAPATERO, Luis. *La prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*, Aranzadi, Iruñea, 2006 (48.or.).

¹⁹ JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco, “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”. ARANGÜENA FANEGO, Coral (koord.). *Cooperación judicial civil y penal en el nuevo escenario de Lisboa*, Granada, 2011 (178. or.).

JIMENO BULNES, Mar, “Orden europea de investigación en materia penal”. JIMENO BULNES, Mar (zuz.). *Aproximación legislativa "versus" reconocimiento mutuo en el desarrollo del espacio judicial europeo: una perspectiva multidisciplinar*, Bartzelona, Bosch, 2016 (159-160. or.).

²⁰ ARANGÜENA FANEGO, Coral. “Orden europea de investigación...”, *op. cit.*, 916. or.

²¹ CASANOVA MARTÍ, Roser; CERRATO GURI, Elisabet. *op. cit.*, 207. or.

lortutako frogak txertatu ahal izateko estatu kideen arteko lankidetzari aukera emanaz (EIAZko 25. kontuan hartuzkoa).

A priori erreparatzen denaren arabera, eta aurreko ataletan azaldu den moduan, aldaketa kualitatiboa eman da exhortoari dagokionez, estatu baten garatzen den ikerketa beste estatu baten – bere subiranotasunean – barneratzeko bidea ireki delako. Izan ere, beste estatuari eskatu diezaioke ondo datorkion ikerketa-egintza burutzea, betiere zuzentarauak arautzen duena errespetatuz. Hortaz, “ezberdinen” arteko borondatezko lankidetzak judizialerako sistematik, “baliokideen” arteko borondatezko lankidetzak judizialerako sistema batera igaro da. Honek suposatzen du *lex loci* eta *lex fori*-en arteko ezberdintasuna gainditzeko beharra sortzen dela, eta estatuak era batean lankidetzak horri lotuta geratuko direla.

Europako ikerketa-aginduari buruzko zuzentarauak sartzen duen sistema honetan, igorpen estatuari dagokio erabakitzea zein den ikerketa-neurri egokiena froga-iturria lortzeko. Hala ere, exekuzio estatuak nolabaiteko askatasuna izango du eskatutako ikerketa-neurri horren inguruan eztabaidatzeko. Are gehiago, eskatutako ikerketa-neurria beste neurri batekin ordezkatzeko erabakia hartu dezake beste estatuak (aurrerago azalduko da).

Kontzeptu eta helburuarekin batera, zuzentaruaren aplikazio-eremua zein den azaltzera ere ekingo diogu. Arau europarrak zuzen eta argi adierazten du ikerketa-aginduak barne hartzen dituela “ikerketa-neurri guztiak” (EIAZko 3. artikulua), ikerketa talde baten eraketaren eta aipaturiko taldeak lortutako frogan salbuespen bakarrarekin Zuzentaruaren aplikazio-eremua zabala dela argi dago, eta bertan azaltzen da izaera horizontala duela (EIAZko 8. kontuan hartuzkoa), hau da, zuzentaruaren aplikazioa, bere osotasunean, ikerketa-neurri guztiei zabaltzen da (aurretik aipatutako bazterketa bakar batekin)²².

Funtsean, aplikazio-eremua praktikatu beharreko ikerketa-neurrietara hedatzen da, barne hartuta exekuzio estatuko autoritate eskudunen eskuetan daudenak, eta baita froga gisa erabili daitekeen objektuaren suntsiketa, aldaketa, lekualdaketa, transferentzia edo besterentzea behin-behinean ekiditeko edozein ikerketa-neurri hartzeko direnak ere (EIAZko 32.1. artikulua).

Ikerketa-aginduaren aplikazio-eremua hain zabala dela ulertzen da, non zigor-prozeduraren edozein fasera heltzen den, epaiketa barne. Zuzentaruak zigor-prozeduraren

²² Ikusi: 2002ko ekainaren 13ko Kontseiluaren [2002/465/JBA](#) esparru-erabakia, ikerketa taldeen ingurukoa.

edozein fasetan, epaiketa barne, ikerketa-neurriak praktikatzeko arauak ezartzen ditu (EIAZko 25. kontuan hartuzkoa). Hala ere, aurreikuspena ez da gerora garatu lege-testu artikulatuan, egokiena eta komenigarriena zitekeena²³.

2.4 Edukia eta forma

Aurretik esan bezala, aginduaren ezaugarri esanguratsuenetarikoa prozeduraren sinplifikazioa eta azkartasuna da. Zuzentarauak, formulario “estandar” baten erabilera aukeratu du EIA izapidetzeko. Igorpen autoritateak, eranskineko formularioa beteko du, eta hau sinatuta, formularioak eskaera forma hartuko du. Eskaera, exekuzio estatuaren laguntza da, sinpleki esanda. JIMENEZ-VILLAREJO-k adierazten duen bezala, formulario bidez biltzen den ikerketa-agindua ebazpen judizial baten baliokidea da (eta loteslea). Prozedura nagusian emandako ebazpen judizialen atxikipena ez da beharrezkoa izango agindua titulu judizialaren izaera lortzeko²⁴.

Egun Auzitegi Nazionaleko epaile titularra den DE LA MATA ere formularioaren garrantziaz ohartu da. Bere ustez, formularioa betetzea prozesuaren giltza da, EIAren abiapuntua eta geroko autoritateen arteko erlazioa ezartzen dituelako²⁵. Zuzentzarauko A eranskinean kokatutako formularioa erabiliz igorriko da EIA, beteta eta sinatuta, zentzuzko den bezala.

“La OEI deberá contener, en particular, la siguiente información:

- a) los datos de la autoridad de emisión y, cuando proceda, de la autoridad validadora;
- b) el objeto y los motivos de la OEI;
- c) la información necesaria sobre la persona o personas afectadas;

²³ RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *op. cit.*, 310. or.

²⁴ JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”. JUANES PECES, Ángel (zuz.). *Cooperación jurídica penal internacional*, Lefebvre, Madril, 2016 (391. or.).

²⁵<https://www.europapress.es/cantabria/noticia-juez-mata-cree-falta-coherencia-ley-espanola-transpone-orden-europea-investigacion-20180822143158.html> [azken kontsulta: 2021-05-22].

- d) la descripción de la conducta delictiva que es objeto de la investigación o proceso y las disposiciones aplicables del Derecho penal del Estado de emisión;
- e) la descripción de la medida o medidas de investigación que se solicitan y de las pruebas a obtener” (EIAZko 5.1. arikulua).

Hizkuntzari dagokionez, igorpen estatuko autoritate eskudunak EIA itzultzeko ardura hartuko du. Noski, EBeko hizkuntza ofiziala izango da beti (EIAZko 5.3. artikulua).

A eranskinako formularioa ataletan sailkatzen da; E atalean, adibidez, aginduak eragindako subjektu edo subjektuen informazio guztia jasoko da, prozesuan subjektuak duen izaera barne: ikertua, biktima, lekukoa, eta abar. Azkenengo zehaztasun hau garrantzitsua da pertsona honi eskaini behar zaion babesa dela eta. Bada, ez da gauza bera prozesuan lekuko izatea edo inputatua izatea²⁶.

G atalera jotzen badugu, hainbat delitu biltzen direla ohartuko gara. Delitu horien artean, EIAaren eskaerarako bidea ematen duen delitua aurkituko da. Kasu honetan, EIA aurrera eramateko, delituak gutxieneko zigorra izan beharko du; hiru urteko askatasun gabetze zigorra, hain zuzen. Esan bezala, delituak hiru urteko gutxieneko zigorra badu igorpen estatuan, orduan EIA eskatzeko aukera dago. Baina hori horrela ez bada, ez dago OEIrako aukerarik. Egoera horretan EIA eskatzea gehiegizkoa dela uste izan da.

EIA bilduko duen A eranskinaz aparte, B eranskina dago. Hau, EIA okerreko autoritatera igortzekotan erabiliko den formularioa da. Okerreko EIA jaso duen autoritateari dagokio, B eranskinaren bitartez, eskumenduna den autoritateari EAI baten harrera helaraztea.

²⁶ MARTINEZ GARCIA, Elena. *La orden europea de investigación: actos de investigación, ilicitud de la prueba y cooperación judicial transfronteriza*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016 (61. or.).

3. EUROPAKO IKERKETA-AGINDUA IZAPIDETZEKO PROZEDURA: IGORPENA ETA EXEKUZIOA

Elkarrekiko aintzatespenerako tresnak arautzerako orduan, dinamika jakin bat jarraitzen da; batetik, igorpena eta transmisioa – ikerketa-aginduaren kasuan –, eta bestetik, aintzatespena eta exekuzioa²⁷.

Prozeduran murgildu baino lehen, eta zein bere aldetik, Europako ikerketa-agindu bat igorri eta exekutatzeko autoritate eskudunak aipatuko dira.

3.1 Autoritate eskudunak

Gainerako elkarrekiko aintzatespen tresnetan gertatzen den bezala, ikerketa-agindua autoritate judizialen arteko komunikazio zuzenean datza. EIAZko 2. artikuluan; batetik, igorpen estatua eta exekuzio estatua definitzen dira (a eta b letrak), eta bestetik, aginduaren igorpen eta exekuzio autoritateak (c eta d letrak).

3.1.1 Igorpen autoritatea

Goian aipatutako arauarekin bat etorritik, igorpen autoritatea “auzigaian eskudun den epaile, jurisdikzio-organo, instrukzio-epaile edo fiskala” dela ulertuko da; edo “igorpen estatua hala definitzen duen eta esku artean dagoen auzigaian zigor-prozesuetan ikerketa autoritate gisa aritzen den bestelako autoritate eskuduna, betiere Zuzenbide Nazionalaren arabera frogak eskatzeko eskuduna bada.

Hortaz, bi autoritate mota bereizten dira. Zuzentarauari lotuta dauden EBeko hogeita sei estatu kideren hainbateko eredu prozesalen existentzia dela eta, kontuan hartu beharko dira; bai ikerketarako eskumena autoritate judizialak – epaile edo fiskala – duten sistema horiek, eta bai eskumena administrazio edo poliziak duten sistemak. Azken kasu honetan, autoritate judizialek administrazio zein poliziak egindako igorpena balioestea ezinbesteko baldintza izango da²⁸.

²⁷ Horrela egiten du EIAZk araudi orokorrean, I, II eta III. kapituluetan, lehenengoak tresna beraren izena du izenburu, eta hurrengoak “Procedimientos y salvaguardias para el Estado de emisión” (II. kapitulua, 6-8. artikulua) eta “Procedimientos y salvaguardias para el Estado de ejecución” (III. kapitulua, 9-21. artikulua).

²⁸ AGUILERA MORALES, Marien. *op. cit.*, 9 eta 10. or.

3.1.2 *Exekuzio autoritatea*

EAIKko 2. artikulua “ikerketa-agindu bat aintzatesteko eskumena duen eta zuzentzara jarraituz exekuzioa bermatzen duen autoritatea” exekuzio autoritatea dela xedatzen du.

Arau europarrak estatu kideen eskuetan usten du exekuzio autoritatea zein izango den zehazteko erabakia. Baldintza bakarra lehenago aipatutako 2. artikulua xedatzen duena betetzea litzateke; aintzatesteko eskumena eta exekuzioa bermatzea, hain zuzen. Berez, artikulua ez du eskatzen exekuzio autoritate hori autoritate judiziala izan behar duela. Baina “barne araudian hala xedatzen denean”, baimen judiziala beharrezkoa izango da²⁹.

3.2 Aginduaren igorpena eta transmisioa

Aurreko atalean prozeduran parte hartuko duten autoritate eskudunak aurkeztu dira. Orain, EIA izapidetzeko ibilbideari hasiera emango diogu.

3.2.1 *Alderdiaren eskaera*

Zuzentzara onartu aurretik, ez zegoen ikertu edo akusatuari bere defentsarako mugaz gaindiko frogak lortzea ahalbidetzen zion inolako tresnarik. Hauen aukera bakarra bitarteko ekonomiko nahikoa izatea zen, batik bat. Zuzentzara ahalbidetzen duen aukera berri honen faltak, alderdi prozesalen arteko desoreka suposatzen zuen - akusazioaren aldekoa-. Zuzentzaren 1. artikuluko 3. atalaren sarrerarekin gaindituko da desoreka hau: “ikertu edo akusatuak (edo honen abokatuak) EIAren igorpena eskatu dezake”. Horrela, agerian uzten da EIA ofizioz (organo jurisdikzionalak), edo kasuan kasuko prozesu penalaren edozein alderdik eskatu dezakeela³⁰.

Ondoren, estatu kide bakoitzaren ardurapean geratzen da izapidetzaren, moduaren, unearen eta baldintzen arauketa, EIA bat igortzeko eskubidea egikaritu dadin³¹.

²⁹ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional...”, *op cit.*, 10. or.

³⁰ Posible da akusazio eta defentsaren arteko desparekotasuna orekatzea nazioarteko froga lortzerakoan. BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional...”, *op. cit.*, 22. or. Halaber, MARTINEZ GARCIA, Elena. *op. cit.*, 53. or.

³¹ RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *op. cit.*, 385. or.

3.2.2 *Igorpena*

EIA igorriko du: a) epaileak, organo jurisdikzionalak, instrukzio-epaileak edo fiskalak; edota b) igorpen estatuak kasurako eskudun izendatzen duen bestelako autoritateak, Zuzenbide nazionalaren arabera ikerketa-neurriak eskatzeko eskumenduna dena (EIAZko 2.c. artikulua). Bigarren aukeraren aurrean egotekotan, legegile europarrak, exekuzio autoritateari igorri aurretik autoritate judizialak agindua balioestea exijitzen du. Azken honek, agindua balioesteko, igorpenerako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du – bereziki zuzentarauaren 6.1. artikuluan zehazten diren baldintzak, hurrengo atalean azalduko direnak, hain zuzen –. Azken batean, aginduaren igorpena autoritate judizialaren menpe dago, honek zuzenean igortzen duelako edo balioesten duelako.

3.2.3 *Igorpenerako baldintzak*

EIAren igorpenak honako baldintzak galdegiten ditu: lehenik, igorpen autoritateak beharrezana, legezkontasuna eta proportzionaltasuna gorde beharko ditu EIA osatzerakoan; bigarrenik, aurreko irizpideak bete direla berrikusiko da, eta hirugarrenik, ikertu edo akusatuaren eskubideak errespetatuko dira.

A) Beharrezana, proportzionaltasuna eta legezkontasuna

Epaile edo bestelako autoritate judizialak EIA igortzeko kontuan hartu beharko ditu Zuzentarauan aurreikusten diren baldintzak, zigor-arloko prozesu nazional baterako eskatutako neurriak burutu daitezzen bete behar diren baldintzak dira (EIAZko 6.1. artikulua).

Igorpen autoritateak EIA igorriko du soilik kasu hauetan:

- a) EIA beharrezkoa eta proportzionala denean, eta
- b) EIA n eskatzen diren ikerketa-neurria barneko antzeko kasu baterako eman zitekeenean.

Exekutatu beharreko ikerketa-neurrien inguruan igorpen autoritateak erabakitzen du, eta honen gain jartzen da EIA bat igortzeko baldintzen berrikuspina: beharrezana, proportzionaltasuna eta legezkontasuna. Jarraian, 6.2. artikulua arabera, 1. atalean aipatutako baldintzak igorpen autoritateak balioztatuko ditu, kasuan-kasuan.

Beharriana eta proportzionaltasuna estuki lotuta daude, proportzionaltasun printzipioak ikerketa-neurria aurreikusitako helburua lortzeko beharrezkoa izatea eskatzen duelako; hau da, ARAGÜEÑA FANEGO-k adierazten duen bezala, eskatzen den ikerketa-neurria (gerora burutuko dena) ezinbestekoa izan behar da garatzen ari den ikerketarako, exekuzioaren bidez aproposak diren datu eta frogak lortzeko³².

Proportzionaltasun printzipioa zailtasun gehien jartzen dituen baldintza dela esan daiteke. Proportzionaltasunak oinarrian ditu, batez ere, eskatzen den ikerketa-neurriaren eta delituaren larritasunaren arteko haztapena, ikertu edo akusatuaren eskubideak (orokorrean, neurri hauen eragina jasaten duen subjektuaren ingurua) eta hain kaltegarria ez den bestelako neurririk ez existitzea (aurrerago aztertuko da proportzionaltasunaren arazoa).

Bestetik, legezketasunaren baldintza, argitasunez azaltzen da EIAZko 6.1.b. artikuluan, ikerketa-neurriaren igorpenerako baldintza gisa aipatzen baitu: “haberse dictado en las mismas condiciones para un caso interno similar”. RODRIGUEZ-MEDEL NIETO-k arau honen ulermenerako zailtasunari erreparatzen dio. Berez, ikerketa-neurria prozedura zehatz baterako eskatu beharko litzateke, EIA beste estatu kide bati transmititzeko eta honen autoritateek exekutatzen. Legezketasunaren baldintzak, prozeduraz arduratzen den estatuan lortu ezin diren frogak estatutik at lortzea ekiditeko helburua du. Funtsean, antzekoa den barneko kasu baten ikerketa-neurria lortzea ezinezkoa izango litzakeelako³³.

B) Baldintzen berrikuspena

Esan bezala, baldintza hauek igorpen autoritateak balioztatuko ditu, banaka kasu bakoitzerako (11. kontuan hartuzkoa eta EIAZko 2.2.ii. artikulua). Aldez aurretik, proportzionaltasun eta beharriana printzipioak betetzen direla egiaztatuko du igorpen autoritateak. Hala ere, igorpen autoritateak kontuan izan beharko du, exekuzio autoritateak baldintzen berrikuspenerako ahalmena duela ere. Bada, exekuzio autoritateak baldintzak bete ez direla pentsatzeko pisuzko arrazoiak izanez gero, igorpen autoritateari kontsulta egiteko aukera emango zaio, EIAren exekuzioaren garrantziaren inguruan eztabaida dezaten.

³² BACHMAIER WINTER, Lorena. “La orden europea de investigación y el principio de proporcionalidad”, *Revista General del Derecho Europeo*, 25. zk., 2011 (5 eta 6. or.).

³³ Legezketasunaren inguruan, RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *op. cit.*, 376-378. or.; ARAGÜEÑA FANEGO, Coral. *op. cit.*, 923 eta 924. or.

Kostultaren ostean, igorpen autoritatearen ardurapean utziko da EIA bertan behera uzteko erabakia (EIAZko 6.3. artikulua).

C) Ikertu edo akusatuaren eskubideen errespetua

EIA igortzerakoan, igorpen autoritateak aparteko arreta jarri beharko luke Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (Gutuna) 48. artikuluan aitortzen diren eskubideen errespetua bermatzeko. Zigor-arloko justiziaren eremuan Gutunak aitortzen dituen oinarrizko eskubideen artean, errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubideak dira funtsezkoak. Zuzentarauaren arabera agindutako ikerketa-neurriak eskubide hauek mugatuz gero, mugapen hori Gutunaren 52. artikuluko baldintzekin bat etorri beharko da; beharrez, proportzionaltasuna eta interes orokorreko helburuei edota eskubideen eta askatasunen babesari dagokionez³⁴.

3.2.4 *Transmisioa*

Arau orokorra autoritate eskudunen arteko igorpen edo bidalketa zuzena da. Horrela, behin igorpen autoritateak EIA igortzen duen, hau exekuzio estatuko autoritate eskudunari bideratu beharko dio (EIAZko 7.1. artikulua). Baina gertatu daiteke igorleak agindua zeini transmititu ez jakitea. Hala bada, EIAZko 7. artikuluko 5. atalak ezartzen du igorpen autoritateak beharrezkoak diren ikerketak egingo dituela. Eta nahi izanez gero, aukera izango duela Europako Justizia Sarea (EJN)³⁵, Lankidetzaren Judizialaren Europako Unitatea (Eurojust)³⁶ edo autoritate judizial eta polizialek erabiltzen dituzten bestelako bideetara jotzeko, exekuzio autoritatearen inguruan informazioa lortuz³⁷.

³⁴ Zuzentarauaren 12. kontuan hartuzkoa.

³⁵ Ikusi: <http://www.ejn-crimjust.europa.eu/ejn/>

³⁶ Ikusi: <https://www.eurojust.europa.eu/>

DE LA MATA epaileak Eurojust erakundearen garrantzia gorai patzen du. EBeko estatu kideen arteko lankidetzaren judizialerako ezinbestekoa dela adierazi du; komunikazioa, elkarrizketa eta EIA bezalako tresnen exekuzioa egokiak eta eraginkorrak izan daitezkeen. <https://www.europapress.es/cantabria/noticia-juez-mata-cree-falta-coherencia-ley-espanola-transpone-orden-europea-investigacion-20180822143158.html> [azken kontsulta: 2021-05-22].

³⁷ Autoritate judizialen arteko koordinazio eta lankidetzarako mekanismo hauek zuzentarauaren 13. kontuan hartuzkoak aipatzen ditu.

3.3 Aginduaren aintzatespena eta exekuzioa

Behin EIA igorrita, honen aintzatespena eta exekuzioa beharrezkoak izango dira prozeduraren jarraipenerako. Hemen dago tresnaren muina. Hori dela eta, arau europarrak artikulu gehiago eskaintzen dizkio atal honi. Esan daiteke EIAREN igorpena izapidetzaren atal “erraza” dela, baina aintzatespena eta exekuzioa gauzatzean, prozedura korapilatzen hasten da.

3.3.1 Aginduaren harrera

EIAZko 9.1. artikulua xedatzen duenaren arabera, transmititutako EIA exekuzio autoritateak aintzatetsi beharko du, besterik gabe. Gainera, EIA jasotzen duen exekuzio estatuko autoritate eskudunak hartu izana adieraziko du, atzerapenik gabe, jaso eta astebeteko epean (EIAZko 16.1. artikulua). Exekuzio autoritateak, igorpen autoritateak igorri ez duen EIA bat jasotzen duenean, hau itzuliko du (EIAZko 9.3. artikulua).

3.3.2 Baliokidetasun printzipioa

Aintzatespen eta exekuzioarekin lotuta, baliokidetasun printzipioa sartzen da jokoan. EIAZko 9.1. artikulua adierazten duen moduan, EIA exekuzio estatuak agindu balu bezala exekutatu da, baldintza eta era berean. Exekuzio autoritatearen ardura izango da hau betetzen dela bermatzea³⁸. Beste aldetik, baliokidetasun printzipioa aginduaren exekuzio epeetara zabaltzen da (EIAZko 12.1. artikulua). Izan ere, aintzatespen edo exekuzio ebazpena hartu eta ikerketa-neurriak aurrera eramango dira barneko kasuei ematen zaien lehentasun eta azkartasunarekin. Agindua jaso eta 30 eguneko epea aurreikusi da exekuzio autoritateak aginduaren aintzatespen edo exekuzio ebazpena har dezan. Hala ere, posible da igorpen autoritateak epea laburtu izana (12.2. artikulua), edota hasierakoa luzatu izana justifikatutako arrazoiak direla (12.5. artikulua). Ondoren, ikerketa-neurriaren exekuzioa egingo da, atzerapenik gabe, eta gehienez aintzatespen ebazpena hartu eta 90 egunetara. Oraingoan ere, epearen laburketa edo luzapena aurreikusi da (12.4 eta 6. artikulua). Epe orokor hauetaz aparte, bestelako neurrietarako epe bereziak ezarri dira³⁹.

³⁸ JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a...” *op. cit.*, 192. or. eta hurrengoak; JIMENO BULNES, Mar. *op. cit.*, 179. or.

³⁹ Adibidez, kautela-neurrietarako (EIAZko 32.2. artikuluan).

3.3.3 *Exekuzio gabeko aintzatespena*

Aintzatespen eta exekuzio prozeduraren inguruan EIAZk barnebiltzen duen arauketak bi erabakiak desberdintzen ditu: aintzatespenaren inguruko erabakia eta exekuzioari dagokiona (EIAZko 9. artikulua). “Ikerketa-neurria exekuzio estatuko antzeko kasu baterako aurrekusita ez dagoenean, eta ondorio berbera duen bestelako neurririk ez dagoenean, exekuzio autoritateak igorpen autoritateari jakinaraziko dio eskatutakoa ezin izango duela burutu”(EIAZko 10.5. artikulua). RODRIGEZ-MEDEL-ek adierazten duen moduan, berez ez da aintzatespen edo exekuzioaren ukapena. Hau da, agindua aintzatesten da, baina gerora, ikerketa-neurria ez da aurrera eramaten, exekuzioaz arduratzen den estatuak hori egiteko ezintasun egoera baten aurrean dagoelako. Neurriaren exekuziorako ezintasuna dakarren EIAren aintzatespen kasua dela esango da⁴⁰.

3.3.4. *Ordezkapena*

Burutuko den ikerketa-neurrian egongo da EIAren ardatza. Igorpen autoritateak erabakiko du zein ikerketa-neurrira jo, batez ere ikerketaren zehaztasunak ezagutzen dituelako. Edonola ere, hau aldatu daiteke, orain azalduko den bezala.

EIA aintzatespen ondoren, exekuzio autoritateak EIAN biltzen den neurria exekutatu duen erabaki behar du, edo ostera, beste neurri ezberdin batek ordezkatuko badu. Izan ere, Zuzentarauak exekuzio autoritateari aukera ematen dio bestelako ikerketa-neurrietara jotzeko. Hala, estatuen arteko lankidetzaren alde egin nahi da, EIAren ukapena ekiditeko helburuarekin, honen eraginkortasuna edo erabilgarritasuna bermatuz. Beraz, bi egoera ezberdintzen dira; batetik, exekuzio autoritateak zuzenean EIAN eskatzen den neurria bera exekutatzea, edo honen ordezko bat aukeratzea eta hau exekutatzea (EIAZko 10. artikulua xedatutakoan babestuz).

Estatu kideak ordezkapenerako bidea hartuz gero, kontuan izan behar du 10. artikuluko 1. atalean ezartzen diren bi baldintza orokorrak. Bertan azaltzen da, exekuzio autoritateak EIAN aurreikusten ez den beste ikerketa-neurri batera joko duela, baldin eta: a) EIAN adierazitako ikerketa-neurria ez badago exekuzio estatuko Zuzenbidearen barnean; edo

⁴⁰ RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *op. cit.*, 408 eta 409. or.

b) EIAAn eskatutako ikerketa-neurriak ez badu inolako existentziarik antzekoa den kasuren baten.

Aukeratutako ordezeko ikerketa-neurri honekin emaitza bera lortuko da, baina bidea ez da hain “erasotzailea” izango (EIAZko 10.3. artikulua). Erasotzaileak ez diren neurriak dira, esate baterako, bizitza edo jabetza pribaturako eskubideak urratzen ez dituzten horiek⁴¹. Ordezkapen kasuetan, exekuzio autoritateak 1. eta 3. ataletan jasotzen diren aukerak erabiltzea erabakitzen badu, igorpen autoritatea jakinaren gainean jarriko du berehala. Eta azken honek, informazio hau jasota, EIA baztertzea edo burutzea erabaki dezake (EIAZko 10.4. artikulua).

⁴¹ JIMENO BULNES, Mar. *op. cit.*, 182. or.; MARTINEZ GARCIA, Elena. *op. cit.*, 70. or.

4. UKATZEKO ARRAZOIAK: EUROPAKO IKERKETA AGINDUA EZ EXEKUTATZEKO LEGEZKO AUKERA

Europako-ikerketa aginduaren ukapena prozeduraren beste atal bat izan daiteke, hau baliozkoa eta zilegia izateko ezinbestekoak diren ukatzeko arrazoiak agertzen badira. EIAren ukapenari bidea emango zaio errekurtsua jartzeko aukeraren aurretik⁴².

4.1. Europako ikerketa-agindua ukatzeko arrazoiaren nondik norakoak

Hasteko, aipatzekoa da EIAren “hautazko” izaera 11.1. artikulua honakoa ezartzen duenean: “Exekuzio estatuan EIAren aintzatespena edo exekuzioa ukatu daiteke”. Estatuei EIA ukatzeko nolabaiteko aukera ematen zaie, betiere, aurrerago aipatuko diren arrazoiaren oinarriuz. Beste bigarren aipamen bat egingo da, esateko, ukapena EIAren gainean duela eragina (bere osotasunean), eta ez honen bidez eskatutako ikerketa-neurri jakinen gainean.

Ukatzeko arrazoiaren arauak garapen nahiko positiboa jasan du aurrean dugun Zuzentarauaren negoziazioan zehar. Eta ez bakarrik edukiari begira, legegintza teknikaren ikuspegitik ere garapena nabarmentzekoa izan da. Hots, testua astuntzen duten eta beharrezkoak ez diren adierazpenak eta errepikapenak ezabatu dira, hauek zailtasunak baino ez zituzten gehitzen tresnaren ulermenean. Eta printzipioz, ulertzeko eta aplikatzeko erreza den Zuzentaraua eratzeko premia zegoen. Batik bat, Estatu ezberdinen ordenamenduak tartean sartzen direlako prozesuan, eta horrek, berez, zailtasunak sortzen ditu. Beraz, testu proposamena korapilatsua bada ordezkapen eta ukatze arrazoiak arautzerakoan - hauek zehaztasunez zerrendatzen ez direlako -, EIA gauzatzeko arazoak sortuko direla susmatu daiteke. Ordezkapen edo ukatze arauen interpretazioei lotuta geratuko da EIAren izapidetza. Eta noski, estatuek beti beren interesen aldeko interpretazioa egingo dute⁴³.

Zuzentarauak, EIA ukatzeko arrazoiak arautzerakoan, hauek ahalik eta gehien mugatzeko saiakerak egin ditu. Are gehiago, ukapenera jo aurretik, kasu zehatzetan ordezko

⁴² Errekurtsoei dagokienez, 2014/41/EB Zuzentarauak 14. artikuluan “Vías de recurso” izenburupean, honako hau xedatzen du: “1. Los Estados miembros velarán por que las vías de recurso equivalentes a las existentes en un caso interno similar sean aplicables a las medidas de investigación indicadas en la OEI; 2. Los motivos de fondo por los que se haya emitido la OEI únicamente podrán ser impugnados mediante un recurso interpuesto en el Estado de emisión, sin perjuicio de las garantías de los derechos fundamentales en el Estado de ejecución”.

⁴³ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional...”, *op. cit.*, 20. or.

bide bat bilatzeko aukera aurreikusi da, lankidetzaz sustatzeko asmoz. Hala, esan bezala, EIAZko 10. Artikuluan, eskatutako neurriaren ordezkapena arautzen da, eta ukatzeko arrazoi posibleak, aldiz, 11. artikuluan.

EIAren aintzatespen eta exekuzioari lotutako kontu garrantzitsuenetariko eta korapilatsunetarikoa da, dudarik gabe, ukatzeko arrazoi eztabaida. Honen inguruan JIMENEZ-VILLAREJO aritu da, esanez: “la existencia de causas de denegación supone, en si mismo, una derogación parcial del principio de reconocimiento mutuo, por lo que se deberían limitar a las estrictamente necesarias”. Ukatzeko arrazoiak elkarrekiko aintzatespen printzipioaren mugatze argia suposatzen dutela mantentzen du autoreak. Bere ustez, ikerketa-neurri baten exekuzioa ukatzeko aukera ematen denez – exekuzio estatuko barne ordenamendu juridikoan ez delako neurri hori aurreikusten, edota neurri hori beste delitu motentzat aplikatzen delako edo EIAk biltzen dituen bestelako baldintzak aurrakusten direlako –, nola edo hala, elkarrekiko aintzatespen printzipioaren zuzeneko aplikazioaren inguruan garrantzizko erabakiak edo emaitzak eman daitezke. Esan daiteke, EIAren aintzatespen eta exekuzioa ukatzeko arrazoiaren eremua – eta hauen hedadura – nahiko eztabaidatu den kontua izan dela⁴⁴.

EIAZren proposamenerako hasierako testuan ez zen jasotzen ukapenaren aukera. Proposamen testuaren negoziaketan ostean gehitu zen, nagusiki nazioarteko sistema juridikoen arteko barne koherentzia mantentzeko: estatuak ez zitezkeen behartuak egon beraien lurraldean aplikatzen ez dituzten legezotasun eta proportzionaltasun irizpideak aplikatzera, oinarritzko eskubideekiko murriztailea den ikerketa-neurria beste autoritate baten partetik etortzekotan. Estatuak lurraldeko herritarren oinarritzko eskubideen tartean sartzera behartzea, beraien legeen kontra eginez, hori ezin zitekeen onartu. Gainera, estatu bat behartuko balitz bere ordenamendu juridikoan aurreikusita ez dagoen ikerketa-neurriren bat aurrera eramatera, “suficiente previsión legal” deituriko printzipioa urratuko litzateke. Azken hau, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) galdegindako printzipioa da, oinarritzko eskubideen neurri murriztaileen eremuan⁴⁵.

⁴⁴ JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”, *op. cit.*, 426. or.

⁴⁵ BACHMAIER, Lorena. “La orden...” *op. cit.*, 16. or eta hurrengoak.

4.2. Europako ikerketa-agindua ukatzeko arrazoi espezifikoak

Aurreko gogoeta orokorren ostean, EIAZk jasotzen dituen ukatzeko arrazoiak aipatu eta azalduko dira.

EIAZko 11. artikulua EIA ukatzeko arrazoiak zerrendatzen ditu, eta hauek dira:

a. Immunitate edo pribilegioa eta prentsa-askatasunaren babesa

EIA ukatu daiteke, honen aintzatespen edo exekuziorako, immunitate edo pribilegioaren urraketa ematekotan. Dena den, EBko Zuzenbidean ez da biltzen immunitatea edo pribilegioaren esanahi bateraturik. Ondorioz, Zuzenbide nazionalari dagokio kontzeptuen esanahia ezarriko litzateke.

b. Segurtasun nazionala

Exekuzio estatuaren interes orokorreko segurtasuna kaltetzen bada EIAren exekuzioa dela eta, hau ukatzeko aukera dago (adibidez, inteligentzia-zerbitzuen informazioa honen barnean sartuko litzateke).

c. Arau-hauste administratiboa eta neurria antzeko barneko kasu baterako aurreikusita ez egotea

Arazoi honi dagokionez, EIAZko 4. artikuluko b eta c ataletan jasotzen diren prozeduretarako EIA eskatzen bada, eta eskatzen den neurri hori ez badago aurreikusita exekuzio estatuaren Zuzenbidean, EIA ukatu daiteke.

d. *Ne bis in idem*

EBeko Zuzenbidearen funtsezko printzipiotzat hartzen da *ne bis in idem* printzipioa. Horregatik, exekuzio estatua baimentzen da EIA ukatzeko, baldin eta aipatutako printzipioa urratzen bada.

e. Lurraldetasun-printzipioaren babesa

Ukatzeko arrazoi bezala sailkatzen da, delitua eskaera egiten duen estatutik kanpo burutu izanaren presuntzioa, edo alderantziz, eskaera egiten zaion estatuaren barruan gertatu izana. Kasu honetan, bi baldintza hauetaz aparte, aldibereko beste bat galdegiten da ukapenerako: EIAren eskaera sorrarazten duen jokabidea exekuzio estatuan tipifikatuta ez egotea.

MARTÍNEZ GARCÍA-ren ustez, lurraldetasun-printzipioaren babesaren arrazoa, neurri batean, elkarrekiko aintzatespen printzipioarekiko kontrajarria da. Izan ere, badira onartezinak diren delituak eta, halere, hainbat estatutan tipifikatuak ez daudenak. Genero-indarkeria delitua da adibide argiena, ez baita behar bezala tipifikatzen gainontzeko estatuetan. Eraso larriak erregulatzen dira; ez, ordea, emakumearen osotasun moralaren aurkako delituak⁴⁶.

f. EBTko 6. artikuluekiko eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunarekiko bateraezintasuna

EBTFko 6. artikulutik eta Gutunetik eratortzen diren betebeharrak eta EIAN biltzen den ikerketa-neurriaren exekuzioa bateraezinak direla ulertzeko arrazoi sendoak daudenean, orduan ukapenerako aukera dago. Edo labur esanda, EIA ukatu daiteke bertan eskatzen diren neurrien exekuzioak oinarrizko eskubideak babesgabe uzten baditu.

Ildo horretan, Melloni auzia gogoraraziko da, non Europako Zuzenbidearen lehentasun-printzipioa gailentzen den: estatu kideek ezin dute Europako Zuzenbidearen kontrako arau nazionalik aplikatu. Hori horrela, oinarrizko eskubideen babeserako estandar nazionalek ezin dute eraginik izan Gutunean aurreikusitako babesaren gainean, ezta lehentasunean, batasunean eta Batasuneko Zuzenbidean ere. Horretan oinarrituz, EIAN eskatutako neurriak Gutunaren arabera babeserako estandarrak eta Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren (EJJA) jurisprudenzia betetzen baditu, exekutagarria izango da exekuzio estatuaren babeserako estandar nazionalekin talka egin arren⁴⁷.

BACHMAIER-ek dio, ez da beharrezkoa egiaztatzea EIA aurrera eramatean oinarrizko eskubideak urratzen direla, hori frogatzea konplexuegia delakoan dago. Bere ustez, oinarrizko eskubideak ziur asko urratuko direla pentsatzeko funtsezko arrazoiak existitzea nahikoa litzateke⁴⁸.

MARTINEZ GARCIA-k, berriz, ikuspuntu ezberdina eskaintzen du; *iuris tantum* presuntzioaren aldeko apustua egiten du, EIAk Gutunaren oinarrizko eskubideak urratzen ez dituela ziurtatzen duen froga onartzearen alde, hain zuzen⁴⁹.

⁴⁶ MARTÍNEZ GARCÍA, Elena *op. cit.*, 76. or.

⁴⁷ EBJAE, Stefano Melloni vs Ministerio Fiskala, 2013ko otsailak 26 (58, 59 eta 60. oinarri juridikoak).

⁴⁸ BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional...”, *op. cit.*, 25. or.

⁴⁹ MARTÍNEZ GARCÍA, Elena. *op. cit.*, 76. or.

g. Exekuzio estatuan delitua eratzen ez duen jokabidea eta D eranskinean agertzen ez dena.

Autoritatea arrazoi honetan oinarritu daiteke baldin eta, EIA n aipatzen den jokabidea exekuzio estatuan deliturik osatzen ez bada. Edo Zuzentarauaren D eranskinean delitua agertzen ez bada.

h. Eskatutako neurria exekuzio estatuan delitu zerrenda edo kategoria zehatz batera mugatuta dagoenean.

Demagun, igorpen estatuak Espainiari ikerketa-neurri bat eskatzen dio, honetan datzan neurria: agente estali bat enpresa baten infiltratzea laneko jazarpen delitua ikertu dezan. Espainiar Estatuan ikerketa-neurri hau erakunde kriminalen kasuetara mugatzen da. Horrelako kasuetan EIAren exekuzioa ukatu dezake autoritateak.

Aipatutakoak dira EIA ukatzeko oinarritzko arrazoiak. Arrazoi hauetaz gain, Zuzentarauak bestelako arrazoi espezifikoak aurreikusten ditu. Esaterako, akusatuak bideokonferentzia bidez entzuna izateko bere adostasuna ez adieraztea (EIAZko 24.2. artikulua).

DE HOYOS ukatzeko arrazoiaren zabaltasunaz ohartu da, eta bere tesiari eusten dio, esanez, ukatzeko arrazoi bat edo beste, modu askotan interpretatu daitekeela (f ataleko arrazoiak, batik bat)⁵⁰.

⁵⁰<http://www.uimp.es/en/?view=article&id=5245:expertos-en-derecho-procesal-analisan-aspectos-de-la-orden-europea-de-investigacion> [azken kontsulta: 2021-05-26].

5. IKERTUAREN OINARRIZKO ESKUBIDEAK ETA FROGAREN ZILEGITASUNA

5.1 Egungo egoera

Estatu batek egindako ikerketak oinarrizko eskubideak eta askatasunak urratzen baditu, ikerketa horren ondorio den froga hori ez da zilegia izango. Izan ere, oinarrizko eskubide eta askatasunei errespetua gorde gabe lortuko froga bat da.

Europako ikerketa-agindua arautzen duen Zuzentarau berriak aurrerapausoa egiten du estatuen arteko laguntza sistema bateratzeko. 2009an onartutako “Programa de Estocolmo” izeneko plan estrategikoarekin batera, EBeko estatuen elkarrekiko aintzatespenean sakontzeko beharra zegoela adierazi zen, eta batez ere, nazioz gaindiko frogen lorpenaren arloan. Momentu hartan, EBeko estatuak beste estatuak frogak – dagoeneko existitzen ziren frogak– lortu zitzaizkien. Haratago joateko nahia piztu zen; estatu kide batek beste bati abian dagoen zigor-prozesurako ikerketa-neurriak eskatzeko ahalbidetzeko nahia, hain zuzen. Noski, ikerketa-neurriak zilegiak eta eraginkorrak izan daitezkeen, baldintzapean eskatuko dira⁵¹.

Zuzentaruak Europako Zuzenbide Prozesalean sartzen duen sistema berri honetan, igorpen estatuak erabakiko du froga lortzeko zein den ikerketa-neurri proposena. Baina hau ez da traba izango exekuzio estatuarentzat. Izan ere, azken honek ere badu askatasuna eskatutako neurriaren inguruan eztabaidatzeko (esan bezala, ikerketa-neurriaren ordezkapena ahalbidetzen du Zuzentaruak). Eztabaida egonez gero, beharrian eta proportzionaltasun printzipioetan oinarritu beharko dira estatuak, bakoitzak proposa uste duen ikerketa-neurriaren aldeko argudioak emateko. Esandakoa, Gutunaren 48 eta 52. artikulua errespetatuz egingo da.

⁵¹GLASER, Sanja; MOTZ, Andreas; ZIMMERMANN, Frank. “Mutual Recognition and its implications for the Gathering of Evidence in Criminal Proceedings: A critical Analysis of the initiative for a European Investigation Order”, *op. cit.*, 1-6. or.

5.2. Ikertuaren oinarrizko eskubideak eta berme prozesalak: errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubidea

LADRON DE GUEVARA-ren adierazpenetik abiatuta – “la OEI, su objeto es la protección de los derechos fundamentales y garantías procesales del imputado dentro de un proceso penal como sujeto pasivo del delito en la misma forma” –, argi dago EIA baliozkoa izateko eskubideak eta berme-prozesalak errespetatu behar direla. Baina, zein eskubide eta berme-prozesal? Bada, zigor-arloko Zuzenbideari dagozkionak. Halere, ez da gai zamurra aurrean duguna⁵².

Atal honetan, Gutunean aitortzen diren errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubidea (48. artikulua) nabarmendu nahi izan dira. Zigor-arloko prozesuetan, errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubidea, Gutunean aitortzen diren oinarrizko eskubideen funtsezko edukia edo “gune gogorra” dira (zigor-arloko justiziaz ari garelarik)⁵³. Errugabetasun-presuntzioa, epai irmo bidez kondenatua izan arte akusatua errugabea dela mantentzean datzan eskubidea da. Eta defentsarako eskubidea, bestetik, dagokion auzitegian eta berme guztiekin defendatzeko akusatuak duen eskubidea da.

Aipatutako eskubideak nahitaezkoak dira estatu kide guztien zigor prozesuetan, eta gainera EBeko Zuzenbideak barnebiltzen ditu: Gutunaren 48. artikulua ezartzen du, “1. Akusatu oro errugabetzat joko da harik eta bere erruduntasuna legez deklaratu arte. 2. Akusatu orori bermatzen zaio defentsaren eskubideen errespetua”. GONZÁLEZ MONJE-rekin bat eginez, “La protección de los derechos de los sospechosos y acusados en los procesos penales es un valor fundamental de la Unión Europea, imprescindible para mantener esa confianza mutua entre los Estados, a la par que la confianza del propio ciudadano en la Unión Europea”⁵⁴.

EIAREN Zuzentarauaren hasierako testu proposamenean, eskubide hauek ez ziren espreski aipatzen. Horren harira, zuzenketak mahaigaineratu ziren eta gerora lege-testua moldatu zen. Zuzentarauaren hasierako kontuan-hartuzkoetan, interesdunaren oinarrizko

⁵² LADRON DE GUEVARA, Juan Burgos. “La orden europea de investigación penal en España aplicación y contenido. posible relación con la orden europea de protección”, *op. cit.*, 522. or.

⁵³ Zuzentarauaren 12. kontuan-hartuzkoa.

⁵⁴ GONZALEZ MONJE, Alicia. “La presunción de inocencia en la Unión Europea: Directiva 2016/343 del Parlamento Europeo y del Consejo de 9 de marzo de 2016 por la que se refuerzan en el proceso penal determinados aspectos de la presunción de inocencia y el derecho a estar presente en el juicio”, *op. cit.*, 2. or.

eskubideen inguruko aipua egiten da eta hauen errespetuaren eskatzen da: “EIA igortzerakoan, igorpen autoritateak Gutuneko 48. artikuluan aitortzen diren eskubideen errespetua bermatu beharko luke. Zigor-arloko prozesuetan, errugabetasun-presuntzioa eta defentsarako eskubidea funtsezkoak dira, Zuzentarauaren bidez agindutako ikerketa-neurriren batek hauek mugatuz gero, mugatze hori Gutuneko 52. artikuluan ezarritako irizpideen barnean egon beharko litzateke: beharrezana, proportzionaltasuna eta interes orokorreko helburua izatea edo gainerako norbanakoen eskubide eta askatasunak errespetatzeko beharra egotea”. Errugabetasun-presuntzioa eta akusatuaren defentsarako eskubideak erabat errespetatu behar dira EIAren garapenean; bestela, eskatzen diren ikerketa-neurrien aintzatespena eta exekuzioa ez dira gauzatuko - ororen gainetik, ikerketa-neurriak ez direlako zilegiak -, ez baitira eskaini prozesuko objektu den subjektuaren bermeak.

Zuzentarauaren iritzi oneko balorazioa baztertu gabe, nazioz gaindiko zigor-prozesuan defentsarako eskubidearen bermearen eraginkortasunari –edo honen gabeziari– helduko diogu. Nazioz gaindiko elementua dela eta, defentsarako eskubidea eraginkortasuna galtzen du. Defentsarako eskubidearen eraginkortasuna bermatzearen alde, komeni litzateke neurri bereziak hartzea. Batik bat, abokatu izateko eskubidea behar bezala artikulatzea, bai igorpen estatuan eta bai exekuzio estatuan. Eta ez hori bakarrik, ezinbestekoa litzateke akusatuaren abokatuak ahalmena izatea atzerrian lortutako frogaren baliozkotasunaren inguruan eztabaidatzeko. Horrelako neurriak hartzen ez diren bitartean, elkarrekiko aintzatespen printzipioak defentsarako eskubidearen kaltetan jardungo du. Defentsak ez ditu aukera berberak izango nazioz gaindiko frogaren edo froga nazionalaren kasuan; alegia, nazioz gaindiko frogaren inguruan eztabaidatzeko edo hauek zalantzan jartzeko aukera gutxiago izango ditu. Eta honek guztiak, azken finean, “armen berdintasun” printzipioaren errespetuaren urraketa ekartzen du. Sistema europarrean – Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (GEEH) –, armen berdintasun printzipioa, *audiatur et altera pars* esamoldearen bidez azaltzen da; hitzez hitz, beste alderdia ere entzun behar dela esan nahi du⁵⁵.

⁵⁵ Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena (edo Giza Eskubideen Europako Hitzarmena). 1950eko azaroaren 4an Europako Kontseiluak onartua. 6. artikulua: “Derecho a un proceso equitativo. 1. Toda persona tiene derecho a que su causa sea oída equitativa, públicamente y dentro de un plazo razonable, por un tribunal independiente e imparcial, establecido por la ley, que decidirá los litigios sobre sus

Zigor prozesuan alderdien arteko berdintasuna beharrezkoa da, eta hauen arteko kontraesana ere. Bigarren hau egiazko kontraesana izan beharko da prozesua eraginkorra izateko. Bi printzipio prozesal hauei esker, alderdiek baldintza berberetan parte hartuko dute prozesuan; eskubide, frogabide edo bestelako elementuei dagokienez. Baina gaur egun, sistema prozesalean orokorrean, alderdien arteko ezberdintasuna nahiko nabaria da. Esan daiteke, “armen berdintasuna” izatetik, “armen desberdintasuna” izatera igaro daitekeela.

5.3. Epaietan lehena: *Ivan Gavanozov* auzia

2019ko urriaren 24an, EBJAak 2014/41/EB Zuzentarauaren lehenengo interpretazioa egin zuen *Ivan Gavanozov* kasuaren inguruko epailetan⁵⁶. Bulgariako Zigor-arloko Auzitegi Espezializatuak epaitu aurreko arazoa planteatzen dio EBJAri: *Ivan Gavanozov* zerga-iruzur delituak burutzeko helburua duen erakunde kriminal baten kide izateagatik prozesatua da, eta ustez, Txekiar Errepublikan kokatutako konpainiak eta honen kudeatzaileak iruzurrean parte hartu dute. Bulgariako auzitegiak, konpainiaren kudeatzailea lekuko bezala ikertzeko asmoarekin, EIA igortzeko nahia adierazten du; txekiar autoritateei eskatuz kudeatzailearen egoitza eta konpainiaren instalazioak arakatu eta dokumentu espezifikoak bilatu ditzaten. Kontua da, lekukoa ikertzeko neurrien kontrako errekutsorik ez dela aurreikusten ez 2014/41 Zuzentaruaren, ez Bulgariako prozedura kriminalaren inguruko araudian. Ondorioz, auzitegiak ez du betetzerik EIAko formularioaren J atala, EIAren igorpenaren kontrako errekurtsoak jarri diren informatzen duena.

Aurrean dugun kasuak, Zuzentarauaren 14. artikulua interpretazioa galdegiten du, honek zera dio: “Los Estados miembros velarán por que las vías de recurso equivalentes a las existentes en un caso interno similar sean aplicables a las medidas de investigación indicada en la OEI”.

EBJAren erantzuna ez da egokiena izan defentsa eskubidearen ikuspuntutik. Berez, EBJAk ez du 14. artikulua interpretazioa egin – kasu honetan ez dela beharrezkoa argudiatuz –, eta Bulgariako igorpen autoritateak formularioa nola bete behar duen

derechos y obligaciones de carácter civil o sobre el fundamento de cualquier acusación en materia penal dirigida contra ella (...).”

⁵⁶EBJAE, *Ivan Gavanozov vs Bulgaria*, 2019ko urriak 24 (37. oinarri juridikoa).

erabakitzera mugatu da. Hortaz, EIAren igorpenaren kontrako errekurtsorik aurreikusten ez duen Bulgariako araudia guztiz alboratu du, ikertu edo akusatuaren eskubideen kalterako. Labur esanda, EBJAk formalismo hutsera mugatu du eztabaida.

Abokatu Nagusia (Y. Bot), berriz, kontrako iritzikoa da. 14. artikulua interpretazioa eginez, ondorioztatu du; estatu kideak errekurtsorako aukera aurreikusi behar dutela, horrela, inplikaturako pertsonak aukera izango du EIAren igorpenaren kontrako errekurtsua jartzeko – bere eskubideak eta interesak babestuz –, prozesuko edozein alderdik egingo lukeen bezala⁵⁷.

Oinarrizko eskubideen defentsan agertzen den edozein pertsonak Abokatu Nagusiaren argudioaren alde egingo luke. Prozesuaren objektu den ikertuak EIAren kontrako errekurtsua jartzeko aukera izatearen artean, edo formularioa modu egokian betetzearen artean - auzitegiaren ekarpena - alde izugarria dago. Eta harrigarria badirudi ere, lan honen aztergai izan den tresna berriaren testuinguruan oinarrizko eskubideak berriro ere ezereztzen dira.

⁵⁷ <https://eucrim.eu/news/ag-bulgaria-not-allowed-to-issue-eios/> [azken kontsulta: 2021-05-25].
<https://eucrim.eu/news/first-cjeu-judgment-european-investigation-order/> [azken kontsulta: 2021-05-25].
<https://eucrim.eu/news/ag-bulgaria-must-bring-its-law-line-eio-directive/> [azken kontsulta: 2021-05-25].

6. ONDORIOAK

1. Lan honen aztergaia izan den tresnaren onarpena EBeko Askatasun-, Segurtasun- eta Justizia Esparruaren garapenerako onuragarria izan da, zigor-arloko lankidetzak judiziala errazteko. Europako ikerketa-aginduaren inguruko Zuzentarauaren helburua da, batik bat, zigor-arloko prozesuaren arloan estatu kideen ordenamenduak gerturatzea. Zuzentarauak igorpen eta exekuzio estatuaren arteko komunikazioa sustatzen du; eskatutako egintza burutzeko erabiliko den *modus operandi* batak besteari azaltzea, gerora lortutako frogaren zilegitasuna ziurtatzeko, eta aldi berean, erantzukizun penala eta alferrikako gastuak ekiditeko.

2. Nazioarteko elementua tartean duten zigor-arloko prozesuak nahasiagoak dira, eta berekin konplexutasun gehiago ekartzen dituzte: estatu kideen artean koordinatzeko ahaleginak, komunikatzeko zailtasunak – praktikan hizkuntza eragozpena da oraindik –, eta epaile edo fiskalek ezagutzen ez dituzten nazioarteko lankidetzarako tresnak erabiltzeko premia, besteak beste. Gainera, kontuan izan behar da, sistema prozesalak nabarmen aldatzen direla estatu batetik bestera, nagusiki, estatuak delituzko egintzak ikertzeko sistema ezberdinak dituztelako.

3. Aurreko puntuarekin lotuta, EIAren arauketa eta erabilera sinplea, nazioz gaindiko elementuak suposatzen duen traba “orekatzeko” mesedegarria izan daiteke.

4. Eskaera egiteko fasea nahiko errazten da A eranskinean bildutako formulario estandarren bidez egiten delako. Noski, honek ez du esan nahi exekuzioa arazorik gabe garatuko dela, ezin baita hori bermatu. Beraz, kasu gehienetan, ikerketak arrakasta izateko, ezinbestekoa da froga ahalik eta azkarren lortzea eta segurtatzea.

5. Zuzentaruak bildutako arauketak, exekuzioa gehiegi ez luzatzea sustatzen du; EIAren tramitazioari, organo nazional batetik datorren edozein eskaerari ematen zaion lehentasuna ematen zaiolako, eta exekuzioa “ahalik eta lasterren” egingo delako, agindua betetzeko epeak jarri. Praktikan, honek ez ditu arrazoirik gabeko atzerapenak ekiditen.

Epeak ezartzen dira, prozesua aurrera eramateko beharrezkoak direlako, baina edozein sistema prozesalean gertatzen den bezala, epeak ez dute berez ekintza bat edo prozesua bere osotasunean bermatzen.

6. Oinarrizko eskubideen babesaren ikuspegitik, egungo Zuzentarauaren testuak bat egiten du frogaren lorpenerako igorpen eta exekuzio estatuek aplikatzen dituzten parametro legalekin. EIA bidali aurretik igorpen autoritateak bete behar dituen baldintzak zentzuzkoak eta egokiak dirudite: beharizana, legezotasuna eta proportzionaltasuna balioztatzea, neurri hori antzeko barneko kasu baterako igorriko litzatekeen edo ez frogatzea, eta EIA epaile edo ministerio fiskalak baimentzea edo balioztatzea (estatu bakoitzaren barneko araudiaren arabera). Gainera, estatuak behartzen dira EIAren kontrako errekurtsua jartzeko aukera arautzera, baita lortutako frogaren kontrakoa ere.

7. Bada, tresna “berriaren” balorazioa orokorrean aldekoa da, hobetu daitezkeen aspektuak egon arren. Horien artean gailentzen da, bereziki, aipatutako armen berdintasun printzipioa. Nazioz gaindiko frogan lorpenerako tresnek alderdi prozesaleko bati nabarmenki mesede egiten diotenean, printzipioa argi eta garbi erasotzen da. Alderdi prozesalen artean, akusazioa da irabazle. Askoz indartsuago den posizio hori orekatzeko ez badira inolako neurririk hartzen –defentsarako eskubidea naziotik haratago egikaritzeko bideak proposatuz–, egoera larriagotu egiten da.

8. Elkarrekiko aintzatespenaren oinarrian dago estatu kidea den horren sistema juridikoarengan uste osoa izatea, eta honekin batera, ordenamenduen arteko estutasuna lortzea (baina araudiak bateratu gabe); hau da, estatu kidearen ebazpenekiko nolabaiteko baliokidetasuna lortzea.

7. BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRIAK

7.1. Bibliografia

AGUILERA MORALES, Marien. “El exhorto europeo de investigación: a la búsqueda de la eficacia y la protección de los derechos fundamentales en las investigaciones penales transfronterizas”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2145. zk., 2012.

ARANGÜEÑA FANEGO, Coral; DE HOYOS SANCHO, Montserrat eta VIDAL FERNANDEZ, Begoña. *Garantías procesales de investigados y acusados: situación actual en el ámbito de la Unión Europea*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018.

ARANGÜEÑA FANEGO, Coral. “Orden europea de investigación: próxima implementación en España del nuevo instrumento de obtención de prueba penal transfronteriza”, *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 58. zk., 2017.

BACHMAIER WINTER, Lorena. “La orden europea de investigación y el principio de proporcionalidad”, *Revista General del Derecho Europeo*, 25. zk., 2011.

BACHMAIER WINTER, Lorena. “Prueba transnacional penal en Europa: La Directiva 2014/41 relativa a la Orden Europea de Investigación”, *Revista General del Derecho Europeo*, 36. zk., 2015.

DEL CARMEN RUIZ MEDINA, María; PONCE GOMEZ, Miriam Olga. “Igualdad y contradicción entorno a la defensa de imputados y acusados en el sistema acusatorio”, *Revista de investigación en Derecho, Criminología y Consultoría Jurídica*, 19. zk., 2016.

CASANOVA MARTI, Roser; CERRATO GURI, Elisabet. “La emisión de una orden europea de investigación para la obtención de prueba transfronteriza y su introducción en el proceso penal español”, *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 62. zk., 2019.

FERNANDEZ FUSTES, M^a Dolores. “Régimen general del reconocimiento mutuo de resoluciones penales en la Unión Europea”. GONZALEZ CANO, M^a Isabel (koord.). *Integración europea y justicia penal*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2018.

GLASER, Sanja; MOTZ, Andreas; ZIMMERMANN, Frank. “Mutual Recognition and its implications for the Gathering of Evidence in Criminal Proceedings: A critical Analysis of the initiative for a European Investigation Order”, *European Criminal Law Review*, 1. liburukia, 1. zk., 2011.

GONZALEZ MONJE, Alicia. “La presunción de inocencia en la Unión Europea: Directiva 2016/343 del Parlamento Europeo y del Consejo de 9 de marzo de 2016 por la que se refuerzan en el proceso penal determinados aspectos de la presunción de inocencia y el derecho a estar presente en el juicio”, *Revista General de Derecho Europeo*, 39. zk., 2016.

DE HOYOS SANCHO, Montserrat. “La orden europea de investigación: reflexiones sobre su potencial efectividad a la vista de los motivos de denegación del reconocimiento y ejecución en España”, *Revista General de Derecho Procesal*, 47. zk., 2019.

JIMENO BULNES, Mar. “Orden europea de investigación en materia penal”. JIMENO BULNES, Mar (zuz.). *Aproximación legislativa "versus" reconocimiento mutuo en el desarrollo del espacio judicial europeo: una perspectiva multidisciplinar*, Bartzelona, Bosch, 2016.

LADRON DE GUEVARA, Juan Burgos. “La orden europea de investigación penal en España aplicación y contenido. posible relación con la orden europea de protección”. JIMENO BULNES, Mar; PEREZ GIL, Julio (koord.). *Nuevos horizontes del derecho procesal*, Bartzelona , Bosch, 2016.

JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación: ¿adiós a las comisiones rogatorias?”. ARANGÜENA FANEGO, Coral (koord.). *Cooperación judicial civil y penal en el nuevo escenario de Lisboa*, Granada, 2011.

JIMENEZ-VILLAREJO FERNANDEZ, Francisco. “Orden europea de investigación”. JUANES PECES, Ángel (zuz.). *Cooperación jurídica penal internacional*, Lefebvre, Madril, 2016.

LLORENTE SANCHEZ-ARJONA, Mercedes. *La orden europea de investigación y su incorporación al Derecho Penal español*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020.

MARTINEZ GARCIA, Elena. *La orden europea de investigación: actos de investigación, ilicitud de la prueba y cooperación judicial transfronteriza*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2016.

NIETO MARTIN, Adan. “Fundamentos constitucionales del derecho penal europeo”, *Revista General del Derecho penal*, 3.zk., 2005.

PEITEADO MARISCAL, Pilar. “¿Es acertado fundar la denegación de la ejecución de una OEI en la potencial vulneración de derechos fundamentales por parte del Estado emisor?”. GONZALEZ CANO, M^a Isabel (koord.). *Orden europea de investigación y prueba transfronteriza en la Unión Europea*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2019.

RODRIGUEZ-MEDEL NIETO, Carmen. *Obtención y admisibilidad en España de la prueba penal transfronteriza: de las comisiones rogatorias a la orden europea de investigación*, Aranzadi, Cizur Menor, 2016.

SUOMINEN, Annika. “Limits of mutual recognition in cooperation in criminal matters within the EU - especially in light of recent Judgments of both European Courts”, *European Criminal Law Review*, 4. liburukia, 3. zk., 2014.

VOGEL, Joachim. “La prueba transnacional en el proceso penal: un marco para la teoría y praxis”. MORENO CATENA, Víctor Manuel; ARROYO ZAPATERO, Luis. *La prueba en el Espacio Europeo de Libertad, Seguridad y Justicia Penal*, Aranzadi, Iruñea, 2006.

7.2. Web-orriak

EJN. Lankidetzak judizialerako tresna praktikokoak: <http://www.ejn-crimjust.europa.eu/ejn/> [azken kontsulta: 2021-05-20].

Eurojust. Eurojust-en zereginak eta tresnak: <https://www.eurojust.europa.eu/judicial-cooperation/tasks-and-tools-eurojust> [azken kontsulta: 2021-05-20].

De la Mata epailearen iritzia EIA transponitzen duen Espainiako Legearen inguruan: <https://www.europapress.es/cantabria/noticia-juez-mata-cree-falta-coherencia-ley-espanola-transpone-orden-europea-investigacion-20180822143158.html> [azken kontsulta: 2021-05-22].

Bulgariaren ezintasuna EIA igortzeko: <https://eucrim.eu/news/ag-bulgaria-not-allowed-to-issue-eios/> [azken kontsulta: 2021-05-25].

EIAren inguruko EBJAren lehenengo erabakia: <https://eucrim.eu/news/first-cjeu-judgment-european-investigation-order/> [azken kontsulta: 2021-05-25].

Abokatu Nagusiaren erantzuna *Ivan Gavanzov* auzian: <https://eucrim.eu/news/ag-bulgaria-must-bring-its-law-line-eio-directive/> [azken kontsulta: 2021-05-25].

Menéndez Pelayo Unibertsitateak argitaratutako artikulua. Zuzenbide prozesalean adituak EIAren eremuak aztertzen dituzte: <http://www.uimp.es/en/?view=article&id=5245:expertos-en-derecho-procesal-analizan-aspectos-de-la-orden-europea-de-investigacion> [azken kontsulta: 2021-05-26].

7.3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak

- EBJAE, Stefano Melloni *vs* Fiskaltza, 2013ko otsailak 26.
EBJAE, Jozef Grundza *vs* Eslovakia, 2017ko urtarrilak 11.
EBJAE, Ivan Gavanozov *vs* Bulgaria, 2019ko urriak 24.